

# **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO GOBERNU SALAREN BATZORDEAK 2024KO AZAROAREN 8AN HARTUTAKO ERABAKIAK**

## **BERTARATUAK:**

### **Presidente jauna**

Ignacio José Subijana Zunzunegui

### **Jaun-andreak**

Mercedes Guerrero Romeo andrea

Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jauna

Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jauna

Pedro Santiago Romero Buck-Arstad jauna

### **Gobernu-idazkari andrea:**

Blanca Rosa Barbero Blanco

## **LEHENA.- AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA.-**

Bileraren akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

## **BIGARRENA. - AURREKO BILERAKO ERABAKIAK BETEARAZTEA. -**

Aurreko bileran hartutako erabakiak bete direla jakinarazi zaio Salari.

## **1.- Magistratuak eta epaileak**

### **1.1 VITORIA-GASTEIZKO 4 ETA 8 ZENBAKIKO FAMILIA EPAITEGIEN BATZAR SEKTORIALA**

Vitoria-Gasteizko 4 eta 8 zenbakiko Familia Epaitegiek 2024ko urriaren 23an egindako Batzar Sektorialaren aktaren edukiaren berri eman zaio Salari. Magistratu-epaile dekanok igorritako aktak hau jasotzen du:

*"14:00etan, Vitoria-Gasteizko 4 eta 8 zenbakiko Familia Epaitegietako Batzar Sektoriala eratu da. Honako hauek osatzen dute: Mónica Basurto Garrido andreak, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 4 zk.ko Epaitegiko magistratu-epailea eta Cristina Navarro Gil andreak, Vitoria-*

Gasteizko Lehen Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegiko magistratu-epailea, Batzordeko idazkari gisa diharduena.

*Ignacio Sánchez Morán, magistratu-epaile dekanok jauna ere bertaratu da.*

**LEHENENGOA.-** Honako puntu hauek aho batez onartzea erabaki da:

*1. Borondotearen kontrako barneratze urgente prozedura baten ondorioz Arabako Unibertsitate Ospitalean ospitaleratutako pertsonen azterketa medikoak egiteko ordu-tarteak finkatzea.*

*Félix Gutiérrez, doktoreak telefonoz eskatu zion epaitegiari onartutako ordutegiak betetzeko, Familiaren Batzar Sektorialean onartutako ordutegietan deskoordinazio bat zegoelako. Hala eta guztiz ere, bi familia-epaitegien inguruabar berriak kontuan hartuta, zaila egiten da onartutako ordutegi horiek betetzea. Hori dela eta, Arabako Unibertsitate Ospitalearekiko koordinazio-lana errazte aldera, eta ospitale horren lankidetzak bikaina aitortze aldera, onartzen da telematikoki konektatutako dela ospitalearekin, honako ordutegitarte hauetan:*

*a.- Astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan: 09:00etatik 10:30era edo 13:00etatik 14:00etara.*

*b.- Ostiralean edo jai-bezperetan eta/edo zubietan: 11:00etatik 14:30era.*

*Nolanahi ere, aparteko inguruabarrak direla-eta, ordutegi-tarte horiek aldatu ahal izango dira, eta, horrenbestez, ez dira urratuko mota horretako presako prozeduretarako ezarritako dauden legezko epeak.*

*Era berean, adierazi behar da epaitegiak abisatutako duela eta aldeztu aurretik jakinaraziko diola Ospitaleari zein ordu zehatzean egingo den komunikazioa.*

**BIGARRENA.-** Ez dago galde-eskerik. "

Gobernu Organoen jakitun geratu da eta uztailearen 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari igortzea erabaki da, jakinaren gainean egon dadin eta legezkontasuna kontrola dezan.

## **1.2 VITORIA-GASTEIZKO LEHEN AUZIALDIKO ETA MERKATARITZA-ARLOKO EPAILEEN BATZAR SEKTORIALAREN DEIALDIA**

Vitoria-Gasteizko epaile magistratu dekanok, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko eta Merkataritza Arloko Epaileen Batzar Sektorialerako deialdiaren berri eman dio Salari. Batzarra 2024/11/14an egingo da, 13:30ean. Hona hemen gai-zerrenda:

*"1. Lehen Auzialdiko 4 eta 8 zenbakiko epaitegietako erreten zibilaren ordezkapenaren inguruan, José Luis Núñez Corral jaunak, Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegiko magistratuak, egindako proposamen hau aztertu eta bozkatzeko:*

*Borondatezko ordezkapenen kasuetan izan ezik, Lehen Auzialdiko 1., 2., 3., 5., 6., 7. eta 9. zenbakiko magistratuek, kontrakorik adierazten ez badute, ez dute inolako eginbiderik egingo erreten gisa Lehen Auzialdiko 4. eta 8. zenbakiko epaitegietan, baldin eta epaitegi horietako titularrek beren gauzetarako hiru eguneko baimena badute barneratzeen eta ezintasunen guardia dagokien hilabeteetan.*

*Adierazitako epaitegi horietako titularrak, barneratzeen eta ezintasunen guardia horretan daudenean, elkarren artean ordezkatzeko dira haietako bat guardia-aldi horretan zerbitzuak ematen ari denean eta norberaren eginkizunetarako hiru eguneko baimena lortzen duenean, eta*

*inolako erretenik ez ditu zerbitzuaren beharrak beteko, EAEANko Gobernu Salak aurreikusitako ordezkapen-kasuetan izan ezik.*

*2.- Galde-eskeak”.*

Sala jakinaren gainean dago.

### **1.3 GERNIKA-LUMOKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO EPAITEGIEN EPAILEEN BATZARRAREN DEIALDIA.**

Gernika-Lumoko epaile magistratu dekanok andreak igorritako komunikazioaren berri eman zaio Salari, hor, Gernika-Lumoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaileen Batzarrerako deialdia jasotzen da. Batzarra 2024/11/06an egingo da, 09:00etan eta Urteko Ordezkapenen Plangintza jorratuko da.

Sala jakinaren gainean dago.

### **1.4 PRAKTIKETAKO EPAILEEN TUTOREA IZENDATZEKO EGOKITASUN-TXOSTENAREN ESKAERA**

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Tutoretzapeko Praktiken Idazkaritzak igorritako komunikazioaren berri eman zaio Salari. Komunikazio horretan jakinarazten denez, beharrezkoak diren kudeaketak egin ondoren, Barakaldoko Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegiko titularra den Susana Lestón Piñeiro magistratua praktiketako epaileen tutore izateko prest dago. Era berean, jakinarazpen horretan egokitasun-txostena egiteko eskatzen du.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Tutoretzapeko Praktiken Idazkaritzak karrera judizialaren 74. promozioari buruz eskatutakoarekin bat etorritik, eta urriaren 25eko 2/2000 Epaile Laguntzaileen Erregelamenduko 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurak jakinarazten du Susana Lestón Piñeiro andreak, Barakaldoko Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegiko titularrak, tutoretzaren funtzio hori behar bezala eta arduraz betetzeko ezinbesteko egokitasun-baldintzak betetzen dituela, adierazitako zeregin horretan jarduteko behar bezala gaituta baitago.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Tutoretzapeko Praktiken Idazkaritzari, eta horren berri eman bekio hautatutako magistratuari.

## **1.5 41/2024 GOBERNU-ESPEDIENTEA.**

XXX epaitegiko XXXX-ek lan-istripuaren berri emateko aurkeztutako idazkia izapidetzeko hasitako 41/2024 gobernu-espedientearen berri eman zaio Salari, urriaren 31ko JUS/1052/2022 Aginduaren 3.4 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (agindu horren bidez, lanbide-gaixotasunetik eta zerbitzu-egintzan edo horren ondorioz izandako istriputik eratorritako eskubideak aitortzeko prozedura arautzen da, Mutualitate Orokor Judizialak kudeatutako administrazio-mutualismoaren eremuan). Era berean, aipatutako eskaerari erantsitako dokumentazioaren berri eman zaio Salari: XXX.

Aipatutako urriaren 31ko JUS/1052/2022 Aginduaren 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako, gobernu-espediente honetarako instrukzio-egile izendatzea erabaki du Salak: Luis Angel Garrido Bengoechea jauna.

## **1.6 BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN TXOSTEN-ESKAERA, BJLOREN 98.3 ARTIKULUAN AURREIKUSIA. TXOSTEN HORI LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIEN ESPEZIALIZAZIOA LUZATZEARI BURUZKOA DA, IZAN ERE ABENDUAREN 31N AMAITUKO BAITA HIGIEZINEN BERMEDUN FINANTZAKETA-KONTRATUEN GAINEKO BANAKAKO AKZIOEZ ARDURATZEN DIREN LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIEN ESPEZIALIZAZIOAREN LUZAPENA, MAILEGU-HARTZAILEA PERTSONA FISIKOA DENEAN.**

Salari Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak igorritako txosten-eskaeraren berri eman zaio. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 98.3 artikulua agintzen duen txostena da eskatzen dena, berme erreal higiezinak dituzten finantzaketa-kontratuetan txertatutako baldintza orokorren gaineko banakako akzioei buruzko ardura beren gain hartu duten epaitegiak espezializatzeko, mailegu-hartzailea pertsona fisikoa izanez gero; bai eta Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegiaren eta Donostiako Lehen Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegiaren espezializazioa abenduaren 31ra arte luzatzeari buruz helarazitako proposamena ere.

Salak, aho batez, erkidego honetan dauden epaitegien espezializazioari eustearen aldeko txostena egin du, eskabidean jasotako baldintzetan:

. Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegia, modu eskusiboan eta baztertzailean, 2025eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko aldirako.

. Donostiako Lehen Auzialdiko 8 zenbakiko Epaitegia, modu eskusiboan eta baztertzailean, 2025eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko aldirako.

. Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zenbakiko Epaitegia, modu eskusiboan eta baztertzailan, 2025eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko aldirako.

Helaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.

**1.7 PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO URRIAREN 25EKO ERABAKIAREN BERRI EMATEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTU DENA, URGENTZIAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, GAUR EGUN ATXIKITA DAUDEN 73. PROMOZIOKO EPAILEEK EUREN ORGANOETAN JARRAITZEKO BAIMENARI BURUZKOA.**

Salak aho batez erabaki du presidenteak 2024ko urriaren 25ean hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat hartutakoa, premiazko arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

*"Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eskaera egin du 73 promozioko epailei baimena eskatzeko ordezkoko epaile gisa edo egungo destinoak indartzeko epaile gisa jarraitzeko 2023ko abenduaren 1etik idatzagiriak entregatu arte, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 307.4, 210 eta 216 bis artikuluetan ezarritakoaren babesean, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat etorritik, honako hau erabaki da presazko arrazoiei dagokienez:*

*Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari adierazi behar zaio Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten promozio horretako epaileek Maite Arantzamendi Arrizabalaga andreak, Ane Hidalgo Susaeta andreak, Estefanía Carreño Núñez andreak, Leire Muñoz de la Vega andreak eta Nagore Pérez Hierro andreak idatziz adierazi dutela baimena ematen dutela adierazitako epean gaur egun atxikita dauden organoetan jarraitzeko.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran, eta jakitera eman Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.»*

Sala jakinaren gainean dago.

**1.8 BJKNREN OSOKO BILKURAREN 2024KO URRIAREN 23KO ERABAKIAREN BERRI EMATEA; ERABAKI HORREK EZARTZEN DU 2024/12/31 IZANGO DELA BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 17 ZK.KO EPAITEGIA ETA BESTE BATZUK MARTXAN JARTZEKO DATA.**

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 23an hartutako erabakiaren berri eman zaio Salari. Erabaki horren arabera, 2024ko abenduaren 31 izango da hiru epaitegi jardunean jartzeko data: Bilboko Lehen Auzialdiko 17 zenbakiko Epaitegia, Arrecifeko Lehen Auzialdiko 6 zenbakiko Epaitegia eta Palmako Administrazioarekiko Auzien 4 zenbakiko Epaitegia.

Salak jakintzat ematen du, eta erabaki du Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzari eskatzea giza baliabideen eta baliabide materialen arloan

beharrezkoak diren jarduketak egin ditzala, Bilboko Lehen Auzialdiko 17 zenbakiko Epaitegia adierazitako egunean martxan jar dadin.

## **2.- Ordezko magistratuei eta ordezkoko epailei buruzkoa**

### **2.1 MIREN IRUNE FERNÁNDEZ ARIAS ANDREAREN ALDE EGINDAKO DEIA BERRESTEA, GETXOKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 3 ZENBAKIKO EPAITEGIRAKO.**

Salak aho batez erabaki du Getxoko epaile magistratu dekanok egindako deia berrestea, Miren Irune Fernández Ariasek ordezkoko epaile kargua bete dezan herri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegian, 2024ko azaroaren 13 eta 14an, epaitegiaren titularra elkarte-jardueretara joateagatik.

Gobernu Sala honek ezarritako irizpideen arabera kanpoko ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoelako berresten da deia.

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarki-taulan argitara dadin.

### **2.2 PRESIDENTEAREN 2024KO URRIAREN 25EKO ERABAKIA BERRESTEA BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, NATALIA VANEGAS HIGUERA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidenteak 2024ko urriaren 25ean hartutako erabakia berrestea, presazko arrazoiak direla eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 art.arekin bat hartutakoa, eta hitzez hitz honako hau dioena:

*“Vitoria-Gasteizko epaile-magistratu dekanok NATALIA VANEGAS HIGUERA ordezkoko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presazko arrazoiak buruz ezarritakoarekin bat, erabaki da berrestea Vitoria-Gasteizko epaile-magistratu Dekano jn.ak egindako deia NATALIA VANEGAS HIGUERA andreak herri horretako Lan-Arloko 2 zk.ko epaitegian ordezkoko epaile kargua bete dezan, Pablo Torralba Lizasoain LAE jaunak lanpostua utzi ondoren, beste plaza batera lekualdatu delako, 2024ko urriaren 25etik plaza bete arte, epaile titularra sartu delako, lekualdatze-lehiaketa egin delako, lanpostua zerbitzu-eginkizunen bidez bete delako, lanpostua urteko ordezkapen-planetan parte hartzen duen epaile edo magistratu boluntarioak bete duelako, lurralde-atxikipeneko epaile bat, destinoaren zain dagoen epaile bat,*

*LA Eri laguntzeko epaile bat, praktiketako epaile bat edo Botere Judizialaren Lege Organikoaren 355.bis artikulua arabera atxikitako epaile bat izendatu delako.*

*Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoien artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarkitaulan argitara dadin.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.*

### **2.3. PRESIDENTEAREN 2024KO URRIAREN 25EKO ERABAKIA BERRESTEA BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, SUSANA ÍÑIGUEZ DEL VAL ORDEZKO EPAILE ANDREARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidenteak 2024ko urriaren 25ean hartutako erabakia berrestea, presazko arrazoiak direla eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 art.arekin bat hartutakoa, eta hitzez hitz honako hau dioena:

*«Bilboko epaile-magistratu dekanok SUSANA ÍÑIGUEZ DEL VAL ordezkoko epaile andreaken alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Bilboko epaile-magistratu dekanok egindako deia berrestea SUSANA ÍÑIGUEZ DEL VAL andreak udalerri horretako Lehen auzialdiko 14 zk.ko Epaitegian ordezkoko epaile gisa jardun dezan, titularrari hiru eguneko baimena eman baitzaio, 2024ko urriaren 23tik 25era bitartean.*

*Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoien artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta*

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarkitaulan argitara dadin.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.*

### **2.4 PRESIDENTEAREN 2024KO URRIAREN 31KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, MARÍA CRUZ PÉREZ GARCÍA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA (1).**

Salak aho batez erabaki du Presidenteak 2024ko urriaren 31n hartutako erabakia berrestea, presazko arrazoiak direla eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 art.arekin bat hartutakoa, eta hitzez hitz honako hau dioena:

*“Vitoria-Gasteizko epaile-magistratu dekanoak MARÍA CRUZ PÉREZ GARCÍA ordezkoko epaile andrearen alde egindako deiaren berri hartu da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Vitoria-Gasteizko epaile-magistratu dekanoak egindako deia berrestea MARIA CRUZ PÉREZ GARCÍA andreak udalerri horretako Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko 1 zk.ko Epaitegian ordezkoko epaile gisa jardun dezan, epaile titularra magistratu-kategoriara igotzeko zinera joan ahal izateko, Justizia Auzitegi Nagusi honen aurrean, 2024ko azaroaren 4an.*

*Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpena jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanoari, 30 egunez iragarki-taulan argitara dadin.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.*

## **2.5 PRESIDENTEAREN 2024KO URRIAREN 31KO ERABAKIA BERRESTEA BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, MARÍA CRUZ PÉREZ GARCÍA ORDEZKO EPAILE ANDREARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA (2)**

Salak aho batez erabaki du Presidenteak 2024ko urriaren 31n hartutako erabakia berrestea, presazko arrazoiak direla eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 art.arekin bat hartutakoa, eta hitzez hitz honako hau dioena:

*“Vitoria-Gasteizko epaile-magistratu dekanoak Administrazioarekiko Auzietarako 1 zk.ko Epaitegiko titularra XXX gatik ordezkatzeko egindako deiaren aldaketaren berri hartu da, erregistra bedi*

*Botere Judizialaren Lege Organikoko 160.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, premiazko arrazoiei dagokienez, honakoa erabaki da:*

*- Indarrik gabe uztea Presidentetza honek 2024ko urriaren 28an hartutako Erabakia, zeinaren bidez berresten baitzen CRISTINA RODRÍGUEZ RUIZ ordezkoko epaileari dei egitea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian kargua betetzeko 2024ko azaroaren 4tik epaile titularren XXX dela-eta, harik eta epaile titularra berriro lanean hasi arte edo urteko ordezkapen-planetan borondatez parte hartzen duen epaile edo magistratu batek bete arte, edo zerbitzu-eginkizunetan parte hartzen duen epaile batek plaza bete arte, edo lurralde-atxikipeneko epaileak, destinoaren zain dagoen epaileak, LAEi laguntzeko epaileak, praktiketako epaileak edo Botere Judizialaren Lege Organikoaren 355 bis artikulua arabera atxikitako epaile batek plaza bete arte.*

*- Vitoria-Gasteizko magistratu epaile dekano jaunak egindako deialdia berrestea MARÍA CRUZ PÉREZ GARCÍA andreak herri horretako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegian ordezkoko epaile kargua bete dezan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 374. artikuluko XXX onartu zaiolako titularrari, 2024ko azaroaren 5etik epaile titularra itzuli arte edo urteko ordezkapen-planetan parte hartzen duen borondatezko epaile edo magistratu batek lanpostua bete arte edo zerbitzu-eginkizunagatik, lurralde-atxikipeneko epaileak, destinoaren*



*zain dagoen epaileak, JATi laguntzeko epaileak, praktiketako epaileak edo Botere Judizialaren Lege Organikoaren 355 bis artikulua arabera atxikitako epaile batek plaza bete arte.*

*Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpena jotzeko arrazoien artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarkitaulan argitara dadin.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.*

## **2.6 PRESIDENTEAREN 2023KO AZAROAREN 4KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, CRISTINA BALBOA DÁVILA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 4ean hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluaekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

*«Barakaldoko epaile-magistratu dekanok CRISTINA BALBOA DÁVILA ordezeko epailearen alde egindako deia berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Barakaldoko epaile-magistratu dekanok egindako deia berrestea CRISTINA BALBOA DÁVILA andreak udalerrri horretako Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko Epaitegian ordezeko epaile gisa jardun dezan, epaile titularra ikastaro batera joan ahal izateko 2024ko azaroaren 7an eta 8an.*

*Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapena jotzeko arrazoien artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari, 30 egunez iragarkitaulan argitara dadin.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.*

## **2.7. PRESIDENTEAREN 2024KO AZAROAREN 6KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, CLARA IBARBIA CHURRUCA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA (1).**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 6an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluaekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

*“Eibarko epaile-magistratu dekanok and.ak CLARA IBARBIA CHURRUCA ordezkoko epailearen alde egindako deia berri hartu da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua premiazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, erabaki da Eibarko epaile-magistratu dekanok and.ak egindako deia berrestea CLARA IBARBIA CHURRUCA and.ak udalerritik horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zk.ko Epaitegian ordezkoko epaile kargua bete dezan, titularrari BJLOren 373.5 artikuluko baimena eman baitzaio XXX dela-eta, 2024ko azaroaren 6tik 9ra.*

*Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakiokete Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanokari, 30 eguneko iragarkitaulan argitaratu dadin.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.*

## **2.8 PRESIDENTEAREN 2023KO AZAROAREN 6KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, JORGE ALEJANDRO AGUIRREGABIRIA REYES ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 6an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua erekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

*“Bilboko epaile-magistratu dekanok jn.ak JORGE ALEJANDRO AGUIRREGABIRIA REYES ordezkoko epailearen alde egindako deia berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua premiazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, erabaki da berrestea Bilboko epaile-magistratu Dekanok jn.ak egindako deia JORGE ALEJANDRO AGUIRREGABIRIA REYES jaunak Bilboko Lehen Auzialdiko 8 zk.ko epaitegian ordezkoko epaile kargua bete dezan, titularraren XXX dela-eta, 2024ko azaroaren 7tik epaile titularra itzuli arte edo urteko ordezkpen-planetan borondatez parte hartzen duen epaile edo magistratu batek lanpostua bete arte, edo zerbitzu-eginkizunetan bete arte, edo lurralde-atxikipeneko epailea, destinoaren zain dagoen epailea, LAEri laguntzeko epailea, praktiketako epailea edo atxikitako epailea izendatuta.*

*Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakiokete Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanokari, 30 eguneko iragarkitaulan argitaratu dadin.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.*

## **2.9 PRESIDENTEAREN 2023KO AZAROAREN 9KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO**

## **ARRAZOIENGATIK, MIREN IRUNE FERNÁNDEZ ARIAS ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko azaroaren 6an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluaarekin bat, presako arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

*“Bilboko epaile-magistratu dekanok MIREN IRUNE FERNÁNDEZ ARIAS ordezkoko epailearen alde egindako deiaren berri eman da. Erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikulua presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat, Salak erabaki du Bilboko epaile-magistratu dekanok egindako deia berrestea MIREN IRUNE FERNÁNDEZ ARIAS andreak udalerri horretako Zigor-Arloko 6 zk.ko Epaitegian ordezkoko epaile kargua bete dezan, titularra 2024ko azaroaren 7 eta 8an ikastaro batera joango delako.*

*Deia berretsi da gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bileran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezkapenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Bidal bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanolari, 30 egunez iragarkitaulan argitara dadin.*

*Eman kontu Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran”.*

### **3.- Bake-epailei buruzkoa**

#### **3.1 LAGUARDIAKO (ARABA) BAKE-EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Laguardiako Udalaren (Araba) Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 22an egindako erabaki-proposamenaren berri eman ondoren, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoa bete dela eta Bake Epaileen Erregelamenduaren 8. artikulua aplikatu behar dela kontuan hartuta, Salak aho batez erabaki du Francisco Javier Arana Martínez jauna udalerri horretako bake-epaile titular izendatzea, eta José Ignacio Jiménez Gracia udalerri horretako ordezkoko bake-epaile; izendapen egokiak eginez, zeinak PAOn (probintziako aldizkari ofiziala) argitaratu beharko baitira. Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, barrutiko Lehen Auzialdi eta Instrukzioko Epaileari edo, egokia balitz, Epaile Dekanoari horren berri emango zaie, bai eta Bake Epaileen erregelamenduko 12. artikuluko ohartarazpena egin ere.

#### **3.2 OLABERRIKO (GIPUZKOA) BAKE-EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Olaberriko (Gipuzkoa) Osoko Bilkuraren 2024ko maiatzaren 16ko Erabaki-proposamenaren berri eman ondoren, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoa bete dela eta Bake Epaileen Erregelamenduaren 8.

artikulua aplikatu behar dela kontuan hartuta, Salak aho batez erabaki du Amaia Cuellar González andrea udalerri horretako bake-epaile titular izendatzea, eta Saray Barreiro Heras andrea udalerri horretako ordezkoko bake-epaile; izendapen egokiak eginez, zeinak PAOn (probintziako aldizkari ofiziala) argitaratu beharko baitira. Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, barrutiko Lehen Auzialdi eta Instrukzioko Epaileari edo, egokia balitz, Epaile Dekanoari horren berri emango zaie, bai eta Bake Epaileen erregelamenduko 12. artikuluko ohartarazpena egin ere.

### **3.3 LANTARONGO (ARABA) BAKE-EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Lantarongo (Araba) Osoko Bilkuraren 2024ko uztailaren 10eko Erabaki-proposamenaren berri eman ondoren, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoa bete dela eta Bake Epaileen Erregelamenduaren 8. artikulua aplikatu behar dela kontuan hartuta, Salak aho batez erabaki du Miguel Martínez Montoro jauna udalerri horretako bake-epaile titular izendatzea, eta Amagoia Pérez Amézaga andrea udalerri horretako ordezkoko bake-epaile; izendapen egokiak eginez, zeinak PAOn (probintziako aldizkari ofiziala) argitaratu beharko baitira. Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, barrutiko Lehen Auzialdi eta Instrukzioko Epaileari edo, egokia balitz, Epaile Dekanoari horren berri emango zaie, bai eta Bake Epaileen erregelamenduko 12. artikuluko ohartarazpena egin ere.

### **3.4 OKONDOKO (ARABA) BAKE EPAILE TITULARRA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Okondoko (Araba) Osoko Bilkuraren 2024ko irailaren 26ko Erabaki-proposamenaren berri eman ondoren, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoa bete dela eta Bake Epaileen Erregelamenduaren 8. artikulua aplikatu behar dela kontuan hartuta, Salak aho batez erabaki du Silvia Fernández de Zuazo Pinedo andrea udalerri horretako bake-epaile titular izendatzea, izendapen egokia eginez, zeina PAOn (probintziako aldizkari ofiziala) argitaratu beharko baita. Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, barrutiko Lehen Auzialdi eta Instrukzioko Epaileari edo, egokia balitz, Epaile Dekanoari horren berri emango zaie, bai eta Bake Epaileen erregelamenduko 12. artikuluko ohartarazpena egin ere.

## **4.- Diziplina-arloa**

(Gairik gabe)

## **5.- Laguntza-neurriak eta jarraipena**

**5.1.- FUNTZIOAK ALDATU GABEKO ZERBITZU-EGINKIZUNERAKO PROPOSAMENA BILBOKO (BIZKAIA) LEHEN AUZIALDIKO 14 ZK.KO EPAITEGIRAKO.**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 350.1 artikulua aplikatuz, eta Gobernu Salaren 2024ko urriaren 25eko Osoko Bilkuraren erabakiz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 26 bis 3.1 artikuluan aurreikusitako publizitatea egitea erabaki zen karrera judizialeko kideen artean, Bilboko Lehen Auzialdiko 14 zk.ko epaitegirako funtzio-aldaketarik gabeko zerbitzu-eginkizun baterako, 6 hilabeteko epea, luzagarria, betetzeko.

Zerbitzu-eginkizuna iragartzeko irekitako epea igarota, honako eskaera hauek jaso dira:

Lehentasunezko lege-irizpideak: 216 bis 3						
Eskatzailea	Jurisdikzioa	Lekua eta destinoa	Organoaren egoera 2024ko 2. hiruhilekoa			Hizkuntza/ EAEko FZ
			Sartutakoak	Ebatziak	Izapidetzen	
PATRICIA BEZOS TORICES	Administraz. auziak	Bilboko Administraz. Auzietako 3 zk.ko Epaitegia	82	76	199	Hizkuntza: Ez dago jasota EAEko FZ: Ez dago jasota
LETICIA BADIOLA PÉREZ	Zigor-arloa	Bilboko Emakumearen aurkako Indarkeriaren Alorreko 1 zk.ko Epaitegia	508	502	459	Hizkuntza: Bai EAEko FZ: Bai
AMAIA DEL CID MADARIAGA	Arlo zibila	Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegia	662	1033	13.828	Hizkuntza: Bai EAEko FZ: Bai
CLAUDIA NÚÑEZ ANDRÉS	Arlo zibila eta zigor arloa	Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegia	Zibila: 199 Zigor: 200 Guzt.: 399	Zibila: 251 Zigor: 193 Guzt.: 444	Zibila: 1265 Zigor: 462 Guzt. : 1727	Hizkuntza: Ez dago jasota EAEko FZ: Bai

1/2019 Jarraibideko irizpideak

Eskatzailea	Eskalafoia	Prestakuntza	Antzeko organoetan jardutea	Argitalpenak	Kontziliazioa	Lanpostu hutsa ordezteko mekanismoa
PATRICIA BEZOS TORICES	3295	Ez dago jasota	Bilboko Lehen Auzialdiko 14 zk.ko Epaitegia	Ez dago jasota	Ez dago jasota	
LETICIA BADIOLA PÉREZ	4152	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	
AMAIA DEL CID MADARIAGA	3559	Ez dago jasota	Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegia	Ez dago jasota	Ez dago jasota	
CLAUDIA NÚÑEZ ANDRÉS	360	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota	

Eskaintzen den zerbitzu-eginkizunean parte hartzeko eskatzen diren merezimenduak betetzen dituzten eskatzaileen inguruabarrak eztabaidatu dira, BJLOko 216 bis artikuluan xedatutakoari jarraiki. Irizpide horien arabera, kontsideratu da lehentasunezko hautagaiak direla: Amaia del Cid Madariaga, jurisdikzio-ordena berekoa izateagatik eta jurisdikzio-jarduera herri berean egiteagatik; eta Patricia Bezos Torices, organo judizial berean jurisdikzioa bete duelako eta egungo jurisdikzio-funtzioa herri berean garatu duelako.

Legezko irizpide horien arabera, Salak baloratu du Patricia Bezos Torices andreak herri berean diharduela eta jurisdikzioa duen organoaren egoera ona dela, eta horrek aukera ematen duela bi organo judizialetan jurisdikzio-zereginak metatzeko.

Amaia del Cid Madariaga andreari dagokionez, Salak baloratu du bete nahi den organoaren jurisdikzio-ordena berekoa dela, herri berean diharduela, Foru Zuzenbidearen gaineko ezagutzak dituela eta baita Autonomia Erkidegoko berezko Hizkuntzarenak ere. Hala ere, titularra den organoaren egoera, errendimendua gorabehera, egoera txarrean dago, eta bi laguntza-neurri behar ditu eginkizun-erleborik gabeko batzordeen bidez.

Irizpide osagarrietara joz, Patricia Bezos Toricesek postu hobe du eskalafoi judizialean, eta organo judizial berean jardun zuen jurisdikzioan.

Behin elementu horiek baloratuta, Sala hautagai horien arteko bozketa egitera pasa da, eta emaitza hau izan da: 2 boto, Amaia del Cid Madariagaren alde, Patricia Bezos Torices andrearen aldeko 2 boto eta abstentzio bat.

Bozketan berdinketa gertatu denez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 157.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, presidenteak kalitate-botoa eman du Patricia Bezos Torices andrearen alde, eta bereziki baloratu du Amaia del Cid Madariaga andrea titular duen organoaren egoera, bi laguntza-neurriekin indartuta baitago, eta horrenbestez, efikaziari eta efizientziari dagokionez, ez da gomendagarria beste organo judizial bati laguntza ematea.

Salak erabaki du Patricia Bezos Torices and.aren aldeko proposamena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea, Bilboko Lehen Auzialdiko 14 zenbakiko Epaitegirako funtzio-aldaketarik gabe zerbitzu-eginkizuna betetzeko.

Bidal bekio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, dagozkion ondorioetarako.

Jakinaraz bekie erabaki hau Bilboko epaile dekanuari, magistratuari eta eskaera aurkeztu eta hautatuak izan ez diren eskatzaileei.

## **6.- Bestelako gaiak**

### **6.1.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IKUSKAPEN-ZERBITZUAREN JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA, 2813/2024 JARRAIPEN-ESPEDIENTEA ARTXIBATZEARI BURUZKOA.**

Salari Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak bidalitako komunikazioaren berri eman zaio. Komunikazio horretan adierazten denez, 2813/2024 zenbakidun jarraipen-espedientea ezereztea eta artxibatzea erabaki da, hain zuzen ere, XXX jaunak/andreak Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zk.ko Epaitegian eman gabe dituen epaiak kontrolatzeko, izan ere jarraipen-espedientea irekitzea eragin zuten ebazpen guztiak eman baitira.

### **ERABAKIAK JAKINARAZTEA.**

Salak aho batez erabaki du bilera honetan hartutako erabakiak interesdun guztiei jakinaraztea.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, zeina 11:00etan hasi eta 12:00etan amaitu baita, eta akta hau egiten da, presidenteak sinatuta. Fede ematen dut.